


Leterenganako urratsak

Irati Majuelo

Lazko abenduan egin zituen hamar urte Xabier Leteren heriotzak eta ezin esan oharkabean pasa denik euskal letretan, lan bat baino gehiago argitaratu baitira efeméridearen karira, nahiz eta ezagun dugun arrazoi batek guztia difuminatzeko joera izan duen. Balea Zuriak omenaldi bat eskaini dio liburu formatuan, bizitakoaren, sortutakoaren eta hausnartutakoaren berreskuratze bat.

Urrats urratuak hori baita azkenean; mahaiaren bueltan bilduta irudika daitezke Leteren lagun, irakurle eta ikertzaileak, elkarrizketa pausatuan, bakoitzarengan utzi duen lorratza, inspiratu dion begirada, jakin-mina piztu dion txinparta partekatzen. Hamar saiakera bil-

tzten ditu liburuak, guztiak independente eta beregainak, baina, intentzio kontzienterik gabe ere, elkarrizko artean abiapuntu eta bigurutzaren direnak. Izan ere, testu bakoitzaren egileek ibilbide, helburu eta aztergai desberdinak dituzten arren, antzeko ondorio eta



'Urrats urratuak. Xabier Leteren goagan'

Egilea: Askoren artean.
Argitaletxea: Balea Zuria.

heldulekuetara iristen dira sarri, Leteren obrak zein bizitzak erakutsitako oinarri sendo eta sakonen adierazgarri. Hala bada, anekdotak, gogoeta poetikoak zein artikuluko akademikoagoak aurkituko ditu irakurleak, azken urteotan poeta kantariaren lanei arreta jarri dieten idazle eta adituaren eskutik. Zentzu horretan, orain arte Leteren inguruan idatzitakoaren laburpen-bilduma xumetzat har daiteke Balea Zuriak aurkezturiko argitalpena.

Oiarzungo kultur-gilearengana hurbiltzeko modu ugari egon litezke, halakoa izan baitzen bere bizitza ere, poesiari zein kantagintzari, kezka intelektualei zein espiritualei, kritika sozialari zein gaixoardiari emana. Saiakerok ere, Leterengana bide anitzetatik gerturazten dira, eta haren bilakaera filosofiko eta humanoa, oinordetza literarioak, ikuspegi etimologikoa, zaurgarritasunarekiko zuen begirada, edota bere kantagintzan errepikatzen diren zenbait kontzepturen azterketa lantzen dute, besteak beste. Irakurleari, beraz, mapa polidetroko bat eskaintzen zaio, Leterengana urra-

tsak emateko xenda urratuak, batzuk besteak baino interesgarriagoak gerta daitezkeenak, bilatzen denaren arabera. Hala ere, liburua ixten duten elkarrizketak zein Mujikkak bildutako testu txatialek indar berezia hartzen dute, lehen pertsonatik egiten baitio, finean, omenaldia bere buruari Letek.

Interesgarria da nola josi ziren zentzu poetikoa, politikoa eta intimoa oiartzuarraren bizitzan. Are, bilduma hau zeharkatzen duen haria litzateke hiruen artean sortzen den txirikorda. «Existenziaren aurrean bi jarrera erakutsi zituen nabarmenki Letek: jazarpen bulartsua eta abaildura. Abaildurak gain hartu ziola pentsa liteke [...], baina eraldatu ere egin zitzaion: damua, fedea eta maitasun sakona ageri ziren haren jarreran eta hitzetan» dio liburuaren aurkezpenak kontraportadan, eta sakontasun hori bilatzea da, ziur aski, lan honen indargunea. Gainbehera dei baikenezake, baina baita urrutzea, bakartzea, sentiberatasuna edo argitasuna ere. Norberak bila ditzala Leterenganako bere urratsak.



'Bizia min'

Idazlea: Jon Ander Urkiaga.
Argitaletxea: Lucés de Galibo.


Jon Ander Urkiagak (Zornotza, Bizkaia, 1987) Nafarroako Kultura fundazioaren gazteentzako lehen poesia saria irabazi zuen poema bilduma honekin, eta Lucés de Galibo etxeak argitaratu du orain liburu formatuan. Auzuriz, 2017an, Urkiagaren *Atea itxi aurretik* poesia lana eman zuen argitara Booktegitik.



'Patti eta inurriak'

Idazlea: Anouk Ricard. **Itzultzailea:** Bego Montorio. **Argitaletxea:** Astiberri.

Anouk Ricard komikigile frantses ospetsuak neskato arrunt batek egoera ezin bitxiago batean biziko dituen gorabehera eroak dakartza lan honetan. Eskolan eta etxean egun ekaitztsua izan ostean, logelan giltzapetu da Patti; ustekabean, ordea, aulkitik erori eta neskato nimoño bihurtuta esnatuko da lorategian.



'Ane eta Moon Intsektuen herrialdean'

Egileak: Noelia Lorenzo Pino eta Alicia Cebrían. **Argitaletxea:** Erein.

Ane eta Moon adiskideen abenturak kontatzen dituen bildumaren ale berri bat da honako hau. Oraingoan, intsektu erraldoiak bizi diren herrialde batean agertu dira bi lagunak, armiarma, tximeleta eta bestelako hamaika xomorronen bizilekuan.

Begiratze hutsak zirrara eragiten du

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Lipuin ilustratua da, azal gorroko liburuan emana, orrialde sendoetan, tamaina ertainean (zabaldurik metro erdi hartzen du).

Kamerungo ahozko tradizioko ipuin bat kontatzen du, idazleak bere garaian entzun zuen gisan, bertakoa izanik.

Testuak eta ilustrazioek lana erdibana egiten dute: letretan kontalariaren ahotsa irudikatu genezake, ahoz egiten den eran transkribatua; irudiek kontalaritza testuinguruetan ematen den giroa jartzen dute, kasu honetan, afrikar ipuin batean espero daitekeen gisakoa.

Emaitza apartekoa da.

Liburua begiratze hutsak zirrara eragiten du. Azalaren gorritasunaren erdian ageri den lehoiaren begiradak sorgindu egiten du.

Hori-gorri-beltz paleta, marrazketa *etnikoa*, askotan lehoiaren ahora garamatzen perspektiba behartuak... Arguile ilustratzaileak bantutarren ipuin honen energia igorri nahi izan dio irakurleari eta, nirekin bederen, guztiz lortu du.

Ahozko tradizioko ipuinak idatziz jartzea ez da erraza. Merezki du Ovidoko Unibertsitateak Ofongori berriki egin dion elkarrizketa ikustea, Youtubeko bilatzailean berehala topatuko duzuenak.



'Kandinga lehoia'

Idazlea: Boniface Ofongo. **Ilustratzailea:** Elisa Arguile. **Itzultzailea:** Manu Lopez Gaseni. **Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka.

Atzaparkada bat edo beste

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Gure betiko errepertorioan ezagutu izan ditugun istorioak kontakizun berriak osatzeko erabiltzen ditugu, beharrak aldatu baino, diskurtsoak aldatu direlako.

Orain feminismoaz hitz egiten dugu (hitz egin ahal dugul!) eta, kaleak hartu ez ezik, feminismoa ipuinetan agertzen da. Demagun *Txanogorritxo* kontatzeko, gure garaiotan behar dugun bezala, beldurrari aurre egiteko asmoz.

Lorerik gorriena albumean agerikoa da gaia hasieratik, eta espero izatekoa jarrera. Txanogorritxoren alabak kontatzen digu amaren trauma, txikitari otso gaizto batekin topatu zenetik gainera kendu ezin duen zama. Eta dena loretxo eder batzuk bildu nahi izateagatik! Gaur egun aitak

(ehiztaria) ekartzen dizkio lore eder gorriak, lore berezi haiek. Baina protagonista ez dago konforme, otsoari aurre egin behar badio, bada egingo dio. Atzaparkada bat edo beste jaso behar badu ere, lore gorriak berak bilduko ditu, eta kito.

Testua zein ilustrazioa sinboloek duten era biluzian eskaintzen dira, beltzetik zurira doazen grisekin, eta gorrinakin biltzen dituela indarguneak.



'Lorerik gorriena'

Idazlea: Itziar Otegi. **Ilustratzailea:** Sandra Grayoa. **Argitaletxea:** Pamiela.